REVISTA DE MEDIO AMBIENTE

# BIZKAIA MAITEA

nº 1/97

ekaina97
JUNIO97

BASAMORTUTZEA: KLIMAREN ETA GIZA JARDUEREN ERAGINA

El turismo: ¿Una amenaza a las especies protegidas?

Bizkaiko baso-azaleraren handitzea

La calidad de las playas

HAURRENTZAKO KOADERNOA

**ARGITARATZAILEA/EDITA**
Bizkaiko Foru Aldundia
Ingurugiro eta Lurralde Ekintza Saila

Diputación Foral de Bizkaia/ Departamento de Medio Ambiente y Acción Territorial

Bizkaia Maitea. Alda. de Recalde, 30
48009 Bilbao. Tel. 420 77 00
Apdo. de Correos 53. Bilbao

**ARGITARATZAILE ORDEZKOA/ /EDITOR DELEGADO**
U.T.E. Iniciativas Ambientales y RALI, S.A.

**ZUZENDARITZA ETA ERREALIZAZIOA/ /DIRECCIÓN Y REALIZACIÓN**
Iniciativas Ambientales

**ERREDAKZIO-BURUAK/ /REDACTORES JEFE**
Juan Carlos Barrios / Eva Benito

**DISEINUA ETA MAKETAZIOA/ /DISEÑO Y MAQUETACIÓN**
Paloma Seoane Cifre

**ILUSTRAZIOAK/ILUSTRACIONES**
Juan Sánchez

**ARGAZKIAK /FOTOGRAFÍAS**
Iniciativas Ambientales • M. Arrazola • J. Sánchez • I.G. Uribe • DFB • G.V.

**EUSKARAZKO AHOLKULARIA / /ASESORÍA DE EUSKERA**
Jose Morales

**FOTOMEKANIKA /FOTOMECÁNICA**
Tratex, S.L.

**INPRIMATEGIA /IMPRENTA**
RALI, S.A.

Lege-gordailua /Depósito legal: BI-733-96

I.S.S.N.: 1136-4246

Aldizkarian azaldutako iritziak artikuluen egileenak dira, eta ez dituzte halabeharrez editorearen ideiak adierazten.

Las opiniones expuestas en la revista, son de los autores de los artículos y no expresan forzosamente las ideas de quien la edita.

PAPER EKOLOGIKOA/PAPEL ECOLÓGICO



# LABURPENA

4
EL TURISMO: ¿UNA AMENAZA A LAS ESPECIES PROTEGIDAS?

8

BASAMORTUTZEA: KLIMAREN ETA GIZA JARDUEREN ERAGINA

10

BIZKAIKO BASO-AZALERAREN HANDITZEA

13
IBAIALDE: CHEQUEO ANUAL A NUESTRO MEDIO AMBIENTE

15

HAURRENTZAKO KOADERNOA

23
MUNDUKO BIZTANLERIA ETA MIGRAZIOEN ABANTAILAK

26

LUCHAR CONTRA LA DESERTIZACIÓN

29
LA CALIDAD DE LAS PLAYAS

31
NOTICIAS BREVES E INTERESANTES

32
BRICOLAJE ECOLÓGICO
Ocio y Medio Ambiente

34
PARTICIPA

# SUMARIO

Badator uda ostera ere. Eta, uda heltzearekin batera, hainbat aldaketa gertatzen dira gure jardunean. Urteko sasoi horretan, egunak luzeago eta eguraldia beroago, harreman estuagoa izaten dugu naturarekin: gehiagotan joaten gara mendira, kirol gehiago egiten dugu... eta Ingurugiroaren Jaia ospatzen dugu.

Aurten, aurreko urteetan legez, BIZKAIA MAITEAk guztioi gogorazten digu Ingurugiroaren Nazioarteko Eguna (ekainaren 5a) oso une egokia dela gure portarea-ohiturei buruzko hausnarketa egiteko. Egun horretan, helburu berriak ezarri behar ditugu etorkizunari begira: gogo biziagoz ekitea etxean hondakinak gaika sailkatzeari, edukiontzi bereziak erabiltzea, ur gutxiago kontsumitzea eta uraren kalitatea hobetzea, mendira joaten garenean zuzenago jokatzea...

Foru Aldunditik eta BIZKAIA MAITEAtik esangura berria eman gura izan diogu Ingurugiroaren Nazioarteko Egunaren ospazikunari. Aurten, kirola egiteak gure ingurunea babestearekin daukan loturara zuzendu gura dugu bizkaitarron ardura. Bizitza osasuntsua ingurugiro osasuntsu batean bakarrik gara daiteke. Ingurugiro-osasuna lortzeko ezinbestekoa da gure bizi-ingurunea hobetzea eta bizitza-ohitura osasuntsuagoak hartzea. Birziklatzea, garbitzea, araztea... ibiltzea, arineketan egitea, olgatzea... txanpon beraren alde biak dira: gure bizi-ingurunea jagotea eta hobetzea.

Azkenik, zorionak eman gura dizkizuet guztioi gaikako bilketaren eta birziklatzearen mailak hobetu ditugulako. Hori ikusirik, pentsa dezakegu 2000 urterako gainditu egingo ditugula geure aurreikuspenak. Zorionak!

eskutitza

Ya llega de nuevo el verano. Y con el verano se producen algunos cambios en nuestras actividades. Durante esta época del año, con los días más largos y las temperaturas más elevadas, se crea una mayor unión con la naturaleza: salimos más al campo, hacemos más deporte, ... y celebramos la Fiesta del Medio Ambiente.

Este año, como en anteriores ocasiones, BIZKAIA MAITEA nos recuerda a todas y a todos, que el Día Mundial del Medio Ambiente (el 5 de Junio), es un buen momento para reflexionar sobre nuestros hábitos de comportamiento, un día en el que debemos plantearnos nuevos objetivos para el futuro: incrementar la selección de nuestros residuos domésticos en el hogar y utilizar los contenedores especiales, disminuir nuestro consumo de agua y mejorar su calidad, mejorar nuestro comportamiento cuando salimos al campo, ...

carta

Desde la Diputación y desde BIZKAIA MAITEA hemos querido dar un significado nuevo a esta celebración de la fiesta Mundial del Medio Ambiente, llamando la atención de la población de Bizkaia sobre la relación que tiene la práctica del deporte con la protección de nuestro entorno. Una vida sana sólo puede desarrollarse en un ambiente sano. La salud ambiental se consigue mejorando el entorno en el que vivimos y adquiriendo unas prácticas de vida más saludables. Reciclar, limpiar, depurar, ... andar, correr, jugar, ..., son dos caras de la misma moneda: cuidar y mejorar el medio en el que vivimos.

No quiero terminar estas líneas sin felicitaros a todas y a todos por haber logrado incrementar nuestros niveles de recogida selectiva y reciclaje, lo que nos permite pensar que para el año 2000 vamos a superar las previsiones que teníamos. ¡Enhorabuena!

Mª Esther Solabarrieta Aznar
Ingurugiro eta Lurralde Ekintzako Foru Diputatua
Diputada Foral de Medio Ambiente y Acción Territorial

# El turismo: ¿Una amenaza a las especies protegidas?

## No te lleves lo que no debes

Tráfico mortal.

Ibon Hormaeche (*)

En la actualidad, cerca de 700 especies se encuentran en peligro de extinción como consecuencia directa de su captura para comerciar posteriormente con sus pieles, plumas, dientes, garras, flores, etc. Pero además, unas 2.300 especies animales y 24.000 especies vegetales se encuentran amenazadas por la misma razón.

Cada año se compran y venden en el mundo 5 millones de aves vivas, 10 millones de pieles de reptiles, 15 millones de pieles de mamíferos ó 2.000 toneladas de corales. El tráfico de animales, plantas silvestres y sus derivados en todo el mundo se estima en más de dos billones de pesetas al año. Más de la cuarta parte de este comercio es ilegal y una gran parte del restante, constituye el tercer tráfico mortal, tras las drogas y las armas. Este comercio internacional de especies silvestres está regulado por el convenio CITES (Comercio Internacional de Especies Amenazadas de Fauna y Flora Silvestres), al que están suscritos 130 países, incluido el nuestro.

Muchos estaréis preparando vuestras vacaciones de verano. Algunos tendréis la suerte de visitar algún que otro país lejano. En este artículo, y a modo de guía, os queremos informar y ayudar para que en vuestras vacaciones no contribuyáis a incrementar este tipo de comercio, comprando "recuerdos" que tienen su origen en alguna especie protegida, amenazada o en peligro de extinción. Recordad asimismo, que en algunos lugares de vacaciones el comercio de los productos derivados de alguna de estas especies es legal, aunque aquí no lo es y os podríais llevar alguna sorpresa en la aduana.

Para quienes no tengamos pensado viajar muy lejos, seguro que nos vendrá bien conocer algo más sobre la protección de especies en peligro de extinción y poder así, difundir éstos conocimientos entre nuestros allegados.

**COSTAS MEDITERRÁNEAS**

Las playas mediterráneas tienen muchos atractivos para los turistas. Aunque mucho más raro que en el pasado, aún puede que te ofrezcan retratarte con una cría de chimpancé. Chimpancés y tigres de dudosa procedencia o nacidos en circos y zoológicos poco escrupulosos, pueden tener este cruel destino de servir como reclamo turístico, de trágico final garantizado. Asegúrate que tus fotos, que te recordarán momentos felices, no contribuyen a este cruel destino de especies tan raras e interesantes. En Grecia, los abrigos de pieles de felinos manchados pueden ser ilegales. Ten cuidado con las baratijas hechas de concha de tortuga, marfil, coral, etc.

**MARRUECOS**

Un paseo por los mercados centrales de Tánger y otras poblaciones marroquíes, demuestra que las tortugas marinas no son la única especie amenazada. Muchos recuerdos se hacen con conchas de tortugas; asegúrate que no contribuyes a su extinción. Si quieres adquirir, por ejemplo, un instrumento musical típico, compra uno de verdad y no esas tristes imitaciones, que además de no sonar bien, están extinguiendo algunas especies.

Mercado de Tánger.

**TURQUÍA**

Todo tipo de pájaros nativos disecados, tortugas, camaleones y otros animales vivos, nativos o exóticos, se venden en los mercados locales. En algunos lugares pueden encontrarse, incluso, aves de presa capturadas o heridas por cazadores. La ilegalidad de tales productos es casi segura, así que resulta mejor no involucrarse. Puede decirse lo mismo de muchas curiosidades marinas que se venden en las costas turcas. Corales, esponjas, conchas y peces pueden estar amenazados por este comercio, incluso si es legal.

Peces amenazados.

**KENYA**

¡El paraíso de los Safaris! Pero ten cuidado. Kenya tiene una legislación muy estricta de protección de la vida silvestre y prohibe la recolección de coral y la exportación de productos derivados de elefantes, rinocerontes y tortugas marinas. Asimismo, está prohibido comerciar con productos de ciertos reptiles. Se permite el comercio con algunas especies, pero debes siempre comprobar qué permisos se requieren, especialmente para la exportación de plantas, insectos y conchas. Kenya es famosa por sus tallas en madera, pero algunas especies de arboles están mal gestionadas. Por ello, comprueba que compras tallas realizadas en maderas exóticas (como el mango y el nim), para no afectar a los arboles autóctonos.



Cuerno de rinoceronte.

**HONG KONG**

Muchos artículos disponibles en Hong Kong no pueden importarse al país de origen del turista, incluido el marfil. Las tallas en dientes de hipopótamo y muchas medicinas tradicionales chinas (con ingredientes "silvestres") requieren permisos especiales o tienen prohibido su comercio internacional.

Captura de tortugas marinas.

Orquídeas tropicales.

Colmillos de elefante.

**INDIA**

Shahtoosh, la "reina de las lanas", proviene del muy amenazado antílope tibetano. La Shahtoosh, la borra del pelaje de este animal, se extrae de los ejemplares matados ex profeso -durante el invierno- para este fin. Dado su elevado precio, la shahtoosh se considera un artículo de lujo y un símbolo de clase entre los ricos. Por desgracia, estas ostentaciones están causando la extinción de la especie: hay que matar hasta tres animales para conseguir suficiente lana para un simple chal. Evita por tanto la ensangrentada shahtoosh y otros productos extraídos de animales silvestres, la mayoría de los cuales están legalmente protegidos en la India.

**TAILANDIA**

El paraíso de las flores más exóticas: las orquídeas, que crecen amontonadas en las selvas tropicales tailandesas. Pero ten cuidado: no tendrás problemas con las orquídeas cortadas procedentes de cultivos, pero sí los tendrás si traes orquídeas cortadas de la naturaleza. Muchas especies de orquídeas están amenazadas y protegidas. Ten también cuidado con las comidas exóticas "silvestres", que pueden estar cocinadas con animales amenazados.

**MALASIA**

¿Buscas un recuerdo especial de tu visita a Malasia? ¿Quizás una bella mariposa enmarcada tras un cristal? Algunas mariposas están seriamente amenazadas (debido principalmente al coleccionismo) y si compras especímenes en Malasia, o en cualquier otro país, puedes contribuir a su desaparición. Muchas mariposas están protegidas totalmente o necesitan permisos especiales para su importación.

**INDONESIA**

Los millares de islas del archipiélago indonesio albergan la mayor riqueza de animales y plantas del mundo. Quedarás estupefacto ante la interminable variedad de productos silvestres que se ofrecen a la venta, pero están sujetos a restricciones nacionales e internacionales. No compres productos de tortugas marinas o curiosidades tan raras como aves del paraíso disecadas. Recuerda que puedes necesitar permisos especiales si quieres llevarte pieles de serpientes u otros reptiles o decoraciones de coral. Los comerciantes suelen "olvidar" mencionar estos requerimientos especiales.

**CHINA**

Muchos de los alimentos y medicinas especiales que se traen del interior del país están regulados por leyes y tratados nacionales e internacionales. Los turistas deben informarse debidamente sobre la necesidad de permisos para traerse a casa estos recuerdos "ingeribles".

Colmillos de morsa.

**AUSTRALIA**

La gran mayoría de la vida silvestre australiana está legalmente protegida y muchos artículos requieren permisos para su exportación. Se incluyen aquí animales autóctonos vivos, insectos y toda una serie de mercancías como conchas marinas australianas. Las autoridades australianas no bromean con las leyes e imponen penas muy estrictas, que incluyen la prisión para los infractores. No obstante pueden exportarse recuerdos hechos de canguros.

Loros exóticos.

Conchas de tortuga.

**EE.UU.**

¡El Salvaje Oeste y los recuerdos para rememorarlo! Pero no te dejes tentar por tallas elaboradas en colmillos de morsas, especialmente en Alaska, o por decoraciones murales confeccionadas con plumas de aves silvestres. Todas las aves salvajes están protegidas en los EE.UU. y la simple posesión de plumas se considera ilegal. Los productos del oso negro americano, grizzly y osos polares necesitan permisos especiales para su comercio internacional. Morsas, focas peleteras y otros mamíferos marinos están también protegidos y el comercio de sus productos sólo está permitido a los artesanos nativos americanos autorizados.

**MÉJICO**

¿Te tienta la oferta de un llamativo loro? Ni se te ocurra comprar uno en las calles o tiendas mejicanas. El país prohibe la exportación de su avifauna autóctona. Muchas de las especies nativas de cactus y orquídeas que se venden son escasas o raras. Méjico prohibe la exportación de las plantas recolectadas en la naturaleza. Así que evítalas, a menos que te aseguren que son cultivadas y cuentes con la documentación apropiada. Si te gustan esas atractivas botas de "cowboy", asegúrate que no están fabricadas con la piel de una especie amenazada. Los objetos de concha de tortugas marinas son abundantes, pero su importación es ilegal.

**EL CARIBE**

El Caribe alberga algunos de los ecosistemas terrestres y marinos más ricos de la Tierra. Disfruta del sol, pero cuídate de los vendedores que ofrecen joyería de concha de tortuga, aceite de tortuga y otros artículos fabricados con restos de tortugas y otras especies marinas amenazadas. El coral negro, sobreexplotado para joyería, está protegido por muchos países. Su recolección o compra contribuye a la disminución de la especie, a la vez que te arriesgas a que te sea decomisado y debas pagar las correspondientes multas. ▲

**SEGURO QUE SI SEGUÍS LOS CONSEJOS QUE HABÉIS LEÍDO DISFRUTARÉIS MEJOR DE LAS VACACIONES, SABIENDO QUE HABÉIS AYUDADO A CONSERVAR LOS MARAVILLOSOS AMBIENTES EN LOS QUE HABÉIS PASADO UNOS INOLVIDABLES DÍAS DE DESCANSO.**

(*) Guía editada por el Gobierno Vasco (Dpto. de Industria, Agricultura y Pesca) Fotos: Adena/WWF

Juan C. Barrios/Eva Benito(*)

# BASAMORTUTZEAREN KLIMAREN ETA

**Nazio Batuek basamortutzearen kontra borrokatzeko batzarra egin zuten 1994an. Honela definitu zuten basamortutzea edo "desertifikazioa": "eremu idor, erdi idor eta subheze lehorretako lurra hondatzea hainbat faktoreren eraginez. Klima-aldaketak eta gizakien jarduerak dira faktore horietako bi".**

Batzar horretan, planetako hainbat buruzagi eta erakunde bildu ziren gai hori aztertzeko. Haien helburua: "basamortutzearen kontra borrokatzea eta lehorteen ondorioak arintzea desertifikazioa edo lehorte larria jasaten duten herrialdeetan, batez ere Afrikan, maila guztietan neurri eraginkorrak hartuz, nazioarteko lankidetzarako eta elkartzerako hitzarmenen laguntzaz. Hori guztia, Programa 21en araberako ikuspegi integratu batetik, ukitutako lurraldeetan garapen eramangarria lortzen laguntzeko".

1994ko batzar horretan bildutakoek, besteak beste, "basamortutzearen kontrako borroka" zertan datzan zehaztu zuten. Hain zuzen ere, horrek izan behar du basamortutzea gelditzeko egiten diren ekintza guztien oinarria. Honela definitu zuten, bada, basamortutzearen aurkako borroka: eremu idor, erdi idor eta subheze lehorretako lurra modu integratuan ustiatzeko egiten diren jarduera guztiak, garapen eramangarriaren mesedetan eta honakoa helburutzat hartuta:

* lurren hondamena eragoztea edo apaltzea,
* partzialki hondatutako lurrak oneratzea, eta
* basamortu bihurtutako lurrak lehengoratzea.

Jarduera bat eramangarria dela diogunean, jarduera horrek denbora-mugarik gabe iraun dezakeela esan gura dugu. Dena dela, eramangarritasuna faktore ezezagun eta ustekabeko askoren menpe dagoenez, ez dago eramangarritasuna epe luzekoa izango dela bermatzerik. Beraz, planeta modu eramangarrian garatu behar dugula diogunean, esan gura dugu biziaren euskarri diren ekosistemen karga-ahalmena gainditu barik hobetu behar dugula gizakion bizitzaren kalitatea. Zentzu horretan, basamortutzeaz jardutea lurzoruaz berba egitea da. Urarekin eta airearekin batera, lurzoruak sistema independiente bat osatzen du: biosfera. Biosfera osatzen duten elementu horietakoren batean aldaketarik gertatuz gero, aldaketa horrek eragina izan dezake sistema osoan.

Higadura lurzoruaren azala oso denbora luzean landare barik

Basamortutzea.

# ASAMORTUTZEA: GIZA JARDUEREN ERAGINA

egotearen ondorio izan da beti. Lurzoruak landareen babesik ez daukanez, indar hondatzaileek, haize gogorrek eta euri-jasek kalte handiak eragiten dizkiote. Gizakiak ere lurzorua higatzen du, batez ere elikagaien agortze kimikoa eragiten duelako eta substantzia toxikoak erabiltzen dituelako. Gizakien jardueren artean, honako hauek eremu idorretan gertatutako hondamenaren %80aren erantzule dira: berezko landareak erauztea -presio demografikoaren eraginez nagusiki-, egurketa eta neurriz gaineko abeltzaintza. Mundu osoan, ureztatze-lurrek 250 milioi hektarea hartzen dituzte; urtean, lur horien %0,1 inguru partzialki edo erabat antzu bihurtzen dira ureztatzen ez direlako; gehienak eremu idorretan edo oso idorretan daude. Egoera horrek zerikusia izan ohi du hainbat fenomeno sozioekonomikorekin; aipatzekoak dira, besteak beste, jakintza-maila apala, pobrezia, azpigarapena eta, batzuetan, kudeaketa txarra

**AGENDA 21:**
**basamortutzearen kontrako ekintzak**

Agenda 21 delakoa 1992an Nazio Batuek Rio de Janeiron Ingurugiroari eta Garapenari buruz egindako konferentziaren emaitzetako bat da. Arazoa konpontzeko hartu behar diren neurriak bildu zituzten bertan. Geroago, basamortutzearen kontra borrokatzeko Nazio Batuen batzarrak ontzat eman zituen neurri horiek. Hona hemen:

* Ezagupenen oinarria sendotzea eta informazio zein behaketa sistematikoko sistemak sortzea basamortutzea eta lehorteak gertatu ohi diren herrialdeei dagokienez.
* Lurren hondamenaren kontra borrokatzea, lurzoruak kontserbatzeko, basoak landatzeko eta basoak berritzeko ekintzak areagotuz.
* Basamortu bihurtzeko joera duten herrialdeetan pobrezia desagertarazteko eta bestelako bizibideak sustatzeko programa integratuak egitea eta sendotzea.
* Basamortutzearen kontra borrokatzeko programa zabalak sustatzea eta programa horiek estatu bakoitzaren garapen-planetan eta plangintza ekologikoan integratzea.
* Herritarren partehartzea eta ingurugiro-hezkuntza sustatzea, basamortutzearen kontrako borrokari eta lehorteak geldiarazteko jarduerei berebiziko garrantzia emanez. ▲

(*) Iturria: "Todos"-UNESCO.

## EKAINAREN 17A, BASAMORTUTZEAREN KONTRAKO NAZIOARTEKO EGUNA

Ekainaren 17an Basamortutzearen Kontrako Nazioarteko Eguna ospatuko du NBEk, hirugarren aldiz bere historian. 20 urte igaro dira Nazio Batuek basamortutzeari buruzko lehen konferentzia egin zutenetik, eta oraindik ez da ezabatu foro horretan aztertu zuten arazoa. Ekainaren 17a egun egokia izango da hausnarketa egiteko: zer egin dezake gutariko bakoitzak arazo larri hori konpontzen laguntzeko? Jakina, arazoa konpontzeko konpromisoa hartzeaz gain, konpromisoa gauzatu beharra dago.

K. Ibarra

# BIZKAIKO BASO-AZALERAREN HANDITZEA

**Jakina denez, zuhaitzak gurtzeak oso erro sakonak ditu euskal kulturan. Euskaldunok betidanik gurtu ditugu zuhaitzak, eta hori antzinako elezahar eta ekandu ugariren sorburu izan da. Besteak beste, udalerrietako, eskualdeetako edo jaurerriko biltzarrak zuhaitz jakin batzuen gerizpean egiten ziren.**

Lurzorua alferrik galtzen eta hondatzen ari da, oso modu kezkagarrian gainera (egindako kalkuluen arabera, Lurraren azaleraren %25 basamortu bihurtu da jadanik). Bizkaian, ordea, orain dela hamar urte baino 5.835 hektarea gehiago dago zuhaitzez estalita. Araban eta Gipuzkoan ere lehen baino ugariagoak dira basoak. Guztira, Euskal Autonomia Erkidegoaren azaleraren %54 basoz estalita dago. Bi dira horren arrazoi nagusiak: batetik, zuhaitz asko landatu dira azken urteotan (administrazioaren eta elkarte forestalisten ekimenez), eta bestetik, berriz, basoak berez birsortzeko ahalmen handia dauka. Horrekin batera, zuhamuxkak urritu dira eta lur gutxiago erabiltzen da nekazaritzan, eta horrek basoa zabaltzen lagundu du, bai abeltzaintza estensiborako erabiltzen ziren lurrak bertan behera utzi direlako, eta bai baserrietako nekazaritza-ustiapenei esker. Beraz, Ingurugiro Ministerioak egindako Espainiako Basoen II. Inbentarioaren arabera, basoz estalitako azalerari dagokionez, Euskadi lehen postuan dago estatuko rankingean.

Datu horiek ikusita, argi dago baso-azalera dela Euskadiko lurzorurik adierazgarriena. Euskal Autonomia Erkidegoak 726.100 hektarea ditu guztira; 206.383 hektarea (gure erkidegoko zuhaitz-azaleraren %53) koniferoz estalita daude -azkar hazten diren espeziez alegia-; hostozabalek, berriz, 183.626 hektarea hartzen dituzte (%47). Larreak, zuhamuxkak eta harkaitzak nagusi diren lur eremu zabaletan sakabanatutako basotxoak kontuan hartzen baditugu, baso-azalerak guztirako azaleraren %65 hartzen du. Gehitze horrek oso irakurketa positiboa du, hainbat gertaera larrik oso eragin kaltegarria izan baitute basoan. Aipatzekoak dira, besteak beste, 1989an Bizkaian piztutako suteak (30.000 hektarea inguru erre ziren), izozteak, prozesionari-izurri ugariak eta kazkabar-erauntsiak (Durangaldean batez ere).

Gero eta ugariagoak dira basoak.

Hostozabalak.

**Radiata pinua**

Radiata pinua edo intsinis pinua dugu espezie nagusia. Dena dela, 1989ko suteen eraginez, basojabe askok eukaliptoa bezalako espezieak landatzeari ekin zioten, espezie horiek suaren ostean ernaberritzeko gai direlako. Espezie nagusia izanik ere, radiata pinua apurka-apurka gutxituz joan da azken urteotan, eta larizio pinua edo itsas pinua eta Douglas izeia landatzen hasi dira haien ordez. Gobernuak markatutako politikaren helburu nagusietako bat baso-espezieen dibertsifikazioa sustatzea da, baina zur-enpresen interesak ahaztu barik, enpresa horiek 20.000 lagun ingururi ematen baitiete lana.

**Koniferoak eta hostozabalak**

Zuhaitz-espezieen banaketa desberdina da probintzia bakoitzean. Lehentxeago esan dugunez, koniferoak hostozabalak baino ugarixeagoak dira oro har. Dena dela, Araban, Euskadi osoko radiata pinuen azaleraren %10 besterik ez dago; horren aldean, Euskadiko artadien %60 lurralde historiko horretan daude, mendialdean, lautadan eta Gorbeia inguruko mendietan batez ere. Gipuzkoan eta Bizkaian, aldiz, koniferoak hostozabalak baino ugariagoak dira (134.521 ha. eta 21.818 ha. hurrenez hurren). Bi probintzia horietan pagoa da bigarren espezie ugariena, baina zazpi radiata pinu dago pago bakoitzeko. Bizkaian, Arratia-Nerbioi eta Durangaldea eskualdeek eta Markina, Ondarroa eta Bermeo udalerriek Euskadin diren pinu guztien erdiak baino gehiago biltzen dituzte (80.000 ha.). ▲

Bizkaia zuhaitzez estalita dago.

# EUSKADIKO ZUHAITZ BEREZIAK

Euskadik 25 zuhaitz-ale berezi ditu dagoeneko, haietako bost Bizkaian. Haien adina, tamaina, edertasuna, historia edo kokapena direla eta, natur interesekotzat jo ditu Eusko Jaurlaritzak. "Zuhaitz berezi" izendapena 1994ko ekainaren 30ean Eusko Legebiltzarrak aho batez onartutako Natura Babesteko Legean jasorik dago eta oso ezaugarri bitxiak dituzten zuhaitz-aleak babestea du helburu.

Garaiko artea.

Hain zuzen ere, aipatutako ezaugarri horiek dira zuhaitzok babesteko arrazoia. Legeak argi eta garbi dio debekatuta dagoela zuhaitz horiek suntsitzea eta haien produktuez baliatzea, helburu zientifikoetarako izan ezik eta, beti ere, foru aldundiek horretarako baimena ematen badute. Natura Babesteko Legeak 50 espezieri eman gura zien babes berezia; beraz, 25 zuhaitz horiek natur monumentu izendatuta, legeak ezarritako helburuaren erdia bete da.

Bizkaiko Garai herrian dagoen artea dugu zuhaitzik bitxienetariko eta ezagunenetariko bat. Gernikako haritzaren ostean, Garaiko artea dugu liburuetan gehien aipatzen den arbola. Arte horren adaburua ikaragarri handia da eta 300 abelburuko artalde oso bat geriza dezake bere abaroan. Zendokizko haritza dugu beste zuhaitz berezi horietako bat. Arteaga herrian dago, Bizkaian, Karmengo Amaren ermitaren alboan. Zuhaitz-harrespila da: harriak ditu inguruan, zirkulu magiko antzeko bat osatuz. Horrek aparteko balioa ematen dio eta, gaur egun ere, mezak

Zendokizko haritza.

esan eta ezkontzak egiten dira beraren adarren gerizpean. Arabako Artziniega herrian ere arte berezi bat dago. Elezaharrak dioenez, Ama Birjina agertu zitzaion beraren adarretan neskatila artzain bati. Ehun urtetik gorako zuhaitz hori herriaren bereizgarria da.

Azkenik, ezin ahaztu izen eta guzti euskaldunon gogoan bizi-bizirik dauden hainbat zuhaitz ospetsu. Banaka batzuk bakarrik aipatuko ditugu: Peru eta Mari gaztainondoak (gaur egun desagertuak) eta Bilboko Areatzako ezkia (139 urte zituela ekaitz batek eraitsia).

Ibaialde'97 Ezagutu eta Maitatu

# IBAIALDE: CHEQUEO ANUAL A NUESTRO MEDIO AMBIENTE

Desde el pasado mes de mayo cerca de dos mil personas, procedentes de centros escolares y de diferentes asociaciones culturales, se han puesto en marcha para analizar la calidad del agua de los ríos de Bizkaia.

La conservación de los ríos es posible.

A. Villalba

El programa Ibaialde'97, promovido por el Gobierno Vasco, va dirigido a cualquier persona, grupo o entidad que esté dispuesta a participar, es decir, centros escolares, asociaciones deportivas, culturales, de tiempo libre, grupos ecologistas, empresas relacionadas con el medio ambiente,... El objetivo del programa consiste en impulsar la participación e implicación de la población en general en la defensa y mejora de nuestro medio ambiente a través del estudio de la calidad de las aguas de los ríos.

El programa Ibaialde comenzó su andadura el año pasado y participaron en torno a 4.800 personas de toda la Comunidad Autónoma del País Vasco distribuidas en 185 grupos. Estas personas demostraron que con su colaboración es posible seguir conservando nuestros ríos.

En esta segunda edición de Ibaialde el estudio de la calidad de las aguas de los ríos se desarrollará también en toda la Comunidad Autónoma Vasca. Concretamente en Bizkaia participarán un centenar de grupos. Los voluntarios y voluntarias actuarán este año sobre quince ecosistemas fluviales elegidos por ellos mismos, y recogerán la basura que encuentren.

Entre los grupos que participan se ha repartido el material de estudio necesario para realizar las salidas a los ríos: cuestionario donde plasmar los resultados obtenidos, equipo analítico para la toma de muestras, rueda de identificación de flora y fauna, mapa topográfico y material complementario con datos de interés. Todo ello con el fin de estudiar las características del río, el estado de conservación

Análisis de un ecosistema fluvial.

del mismo y las posibles amenazas. Posteriormente se recogerá toda la información reunida y con todos los datos se elaborará un informe que se enviará a todos los participantes y a organismos relacionados con ecosistemas fluviales y su gestión.

**Aztertu**

Ibaialde, junto al programa Azterkosta -que este año comenzará en otoño-, conforman un programa más amplio de Educación Ambiental llamado Aztertu. Hasta el momento ambos programas se habían desarrollado de forma independiente.

El programa Azterkosta comenzó su andadura en 1992 y forma parte de una red de estudios europeos denominada Coastwatch. Las campañas Coastwach se realizan en Europa desde 1989 y consisten en la recogida y tratamiento de datos sobre el estado del litoral. Con ellas se pretende no sólo obtener información sobre la situación de las costas, sino acercar a los participantes (principalmente la población escolar) a las costas para que descubran la influencia del ser humano sobre ellas y, simultáneamente, conocer y llamar la atención sobre la situación de la franja litoral. La red tiene como centro el Trinity College de Dublín y agrupa a países como Bélgica, Gran Bretaña, Italia, Irlanda, Lituania, Estonia, Holanda, Noruega, Polonia, Portugal, Suecia, Ucrania, Islandia y España.

Litoral vizcaíno.

**Los estudiantes y el medio ambiente**

La implicación de los estudiantes en la preocupación y el cuidado del medio ambiente no es algo nuevo. Numerosos centros educativos de Bizkaia están llevando a cabo programas de educación ambiental y realizando experiencias reales de estudio. Este es el caso, entre muchos otros, del Instituto de Bachillerato de Barakaldo, que lleva alrededor de ocho años incentivando a su alumnado en actividades medioambientales. Concretamente el año pasado, junto con el Colegio de Educación Especial Aldamiz de Bilbao, ganaron el certamen escolar "¿Es ambiental tu centro educativo?", convocado en el marco del III Congreso Nacional del Medio Ambiente, que se celebró en Madrid el pasado mes de noviembre. ¡Enhorabuena a ambos!

El trabajo desarrollado en el Instituto versó sobre los residuos en los centros de enseñanza, para lo que efectuaron una observación en profundidad sobre su propia realidad.

Por su parte, la experiencia en el colegio Aldamiz se centró en el respeto al medio ambiente y en temas tales como la contaminación, la reutilización y el reciclaje de materiales. El colegio Aldamiz elabora un programa medioambiental anual con el que pretende inculcar mensajes concretos a todo su alumnado. ▲

## ¡Apúntate estos teléfonos!

- Programa Aztertu: (94) 427 79 17
- Experiencias medioambientales en el ámbito educativo:
  Centro de Educación e Investigación Didáctico-Ambiental (CEIDA): (94) 411 49 99

REVISTA DE EDUCACIÓN AMBIENTAL

# bizKaia maitea

Tailerra 20. orr.

Todo se apoya en el suelo
Pág. 16

Cómic
pág. 18.

Katajineta arrunta
19. orr.

Pasatiempos
pág 22.

Kontaiguzu
21. orr.

ekaina 97 junio

# Todo se apoya en el suelo

Eva Benito

En las ciudades y pueblos, la mayor parte del suelo está cubierto por asfalto. Son las calles, plazas, carreteras... Pero en los parques y cuando salimos al campo, podemos ver que el suelo es un material negruzco, marrón o rojizo que, si no está mojado y lo coges, se desmenuza y se escapa de las manos. Ese material es lo que normalmente llamamos tierra, la misma que usamos para que vivan las plantas en nuestros tiestos.

Cuando llueve, si el suelo no está protegido por la hierba y por otras plantas de raíces más profundas, la tierra se soltará y se deslizará por las pendientes hasta los ríos, llegando al mar. De esta forma, si se arranca la vegetación, vamos perdiendo el suelo. Es lo que se llama erosión de los suelos. Recuerda, pues, que cuanta más vegetación haya, más vida y protección tiene el suelo.

Además, ahora somos más de 5.000 millones de personas las que tenemos que alimentarnos y beber agua todos los días. Por ello, debemos cuidar el suelo sobre el que vivimos, ya que es el lugar donde crecen los árboles y las plantas, y es el que nos proporciona los alimentos necesarios

En el suelo también hay infinidad de pequeños animales, como las lombrices, que recorren el interior del mismo buscando su comida. También habrás oído hablar del topo, ese animal que excava galerías por el suelo y que de vez en cuando sale al exterior, formando esos pequeños montoncitos de tierra que se pueden ver en algunas praderas.

# KOMIKIA
# CÓMIC




Hurbil daude oporrak, eta litekeena da oporraldian egingo dituzuen gauzetako batzuk kaltegarriak izatea bisitatzen dituzuen lekuetako landare eta animalientzat. Hori guztia kontuan harturik, honakoa proposatu gura dizuegu: basaespezieei kalte egiten dieten ekintza guztiak aztertzea eta idatziz jasotzea. Itzultzen zaretenean, bidali aldizkarira, horrelako jokabideak eragozteko proposamenekin batera.

# KATAJINETA ARRUNTA

Katajinetak katu txiki baten antz handia du. Baina ez dago katutzat hartzerik, oso ezaugarri bereziak ditu eta: mutur zorrotza, gorputz luze eta liraina, eta, batez ere, eraztun beltzez marratutako buztan luzea.

Animalia txiki hau oso hozpera da, eta, jatorria inguru epeletan duenez, nekez jasaten ditu negu hotzak. Gure Autonomi Elkartean, koniferoen zein hostozabalen basoetan aurkitu ohi da.

P. García

Katajineta gautarra eta bakartia da. Enbor hutsetan eta haitzulo naturaletan ezkutatu ohi da. Karraskariak, basoko hegazti espezie batzuk eta narrastiak jaten ditu.

Larrua oso polita eta preziatua duenez, ehiztariek ez diote bakerik ematen katajineta errukarriari. Euskadin, legearen babesa du gaur egun, eta, beraz, debekatuta dago harrapatzea.

# LANDAREAK ETA LURZORUAREN HIGADURA

Ikusi dugunez, lurzorua garrantzi handikoa da. Bertan hazten diren landareak edo zuhaitzak desagertzen direnean, babes barik geratzen da uraren eta haizearen menpe. Pentsatu duzu inoiz zer gerta daitekeen ekaitz handi baten ostean? Erraz ikusiko dugu esperimentu baten bidez.

MATERIALA

* lorontzi bi
* lurra eta belar-haziak
* ureztailua



1.- Lorontzi luzanga bi hartu eta lurrez bete.
2.- Belarra erein haietako batean eta erregularki ureztatu biak.
3.- Astebete eta egun batzuen ostean, belarra haziko da. Oso okertuta ipini lorontzi biak.
